

**DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA, SA-N ONDOKO LAN POLTSA SORTZEKO DEIALDIA
ETA HAUTAKETA PROZESUA:
MARKESINEN GARBIKETA (DESGAITUAK)**

- **DEIALDIAN ONARTUTAKO ETA BAZTERTUTAKO HAUTAGAIEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA**
- **PROBETARAKO DEIEI BURUZKO INFORMAZIOA**

Goian aipatutako Deialdian onartua izateko eskabideak aurkezteko epea amaituta, eta oinarrietan xedatutakoa betez, Hautaketa Batzordeak hau erabaki du:

ERABAKI DU

Lehena.- Hautaketa Prozesuan onartuta eta baztertuta gelditu diren hautagaien behin-behineko zerrenda onartzea eta argitaratzea. Zerrendan, halaber, egiaztatutako Euskara mailari buruzko informazioa emango da, bai eta Euskara proba egiteko eskaera aurkeztu den ere (1. ERANSKINA).

Gogorarazte da, desgaitasuna eta lanpostuaren zereginak bateragarriak izatea bermatzeko beharrezkoa dena egingo da eta beharrezko neurriak hartuko dira. Ildo horretan, Hautaketa Prozesuak garatzen ari den bitartean eta Hautaketa Batzordeak beharrezkotzat joz gero hautagaiei egoki irizitako mediku probak eta azterketak egin ahal izango zaizkie, Hautaketa Prozesuak amaitu arte itxaron beharrik gabe. Mediku azterketa eta proba horiekin desgaitasun maila lanpostura egokitzen den ala ez egiaztatu ahal izango da, besteak beste.

Bigarrena.- Interesdunek egoki irizitako erreklamazioak edo akats zuzenketak egin ahal izango dituzte, zerrenda argitaratzen den egunetik bertatik hasi eta 3 egun balioduneko epean (**uztailaren 28an eta abuztuaren 1 eta 2an**). Horretarako, berariaz prestatu den formularioa bete eta Donostiako Tranbia Konpainiaren bulegoetan entregatu beharko dute (Fernando Sasiain kalea, 7), goizeko 9:00etatik 13:00ak arte. **Kasuan-kasuan beharrezkoak diren egiaztagiria ere aurkeztu beharko dira.**

Alegazioak Hautaketa Batzordeak ebatziko ditu eta, behin ebatzita, Hautaketa Prozesuan onartutako hautagaien behin betiko zerrenda argitaratuko du. Behin betiko zerrenda hori www.dbus.es web orrian argitaratuko da, **abuztuaren 4tik aurrera**. Onartu ez diren hautagaiek ezin izango dute Hautaketa Prozesuan jarraitu.

Hirugarrena.- Jakinarazten da Proba Psikoteknikoen eta Gaitasunekoien Fasea irailean egingo dela. Deialdia bide honetatik bertatik egingo da.

Hautaketa Batzordeak egiaztatu ahal izango du hautagaiek Hautaketa Prozesuan zehar aurkeztutako dokumentazioa eta emandako informazioa egiazkoa dela eta, hautagairen batek informazio edota dokumentu faltsuak aurkezten baditu, hautagai hori deialditik kanpo utzi ahal izango du automatikoki.

Hautaketa Prozesuen garapenarekin lotura duen informazio guztia jakinarazpenerako honako bide ofizial hauetan argitaratuko da:

- Web orria: www.dbus.eus/es/otros-servicios/seleccion-de-personal/
- Donostiako Tranbia Konpainiako iragarki taula (Fernando Sasiain, 7. Donostia-San Sebastian).

Izpta. Hautaketa Batzordea
Donostia, 2017ko ekainaren 28a

1.ERANSKINA: Hautaketa Prozesuan onartu eta baztertu diren hautagaien behin-behineko zerrenda.**ONARTUTAKO HAUTAGAIAK**

NAN	EGIAZTATUTAKO EUSKARA MAILA	EUSKARA PROBA EGITEKO ESKAERA
15934100E	---	EZ
15940292G	---	EZ
15948286V	---	EZ
15966179Q	---	BAI
15976098E	---	BAI
15981697D	---	EZ
15984370Z	---	EZ
24350398E	---	BAI
34094203S	---	EZ
34101401Z	---	EZ
34105168D	---	EZ
35779780Z	---	BAI
44131633S	---	EZ
44135612S	---	EZ
44140354L	---	EZ
44141731Q	---	BAI
44148487X	B1	EZ
44149270B	---	BAI
44158102B	---	BAI
44166755Q	---	BAI
44169189N	---	BAI
44333243F	---	BAI
72435418T	---	BAI
72502915S	---	EZ
72524485B	---	EZ

BAZTERTUTAKO HAUTAGAIAK

NAN	EGIAZTATUTAKO EUSKARA MAILA	EUSKARA PROBAREN ESKAERA	ZERGATIK BAZTERTU DEN
72466954A	---	BAI	4
79327933J	---	EZ	4

ZERGATIK BAZTERTU DEN

Hauek ez betetzea:

- 1) Onarpen eskabidea, behar bezala beteta.
- 2) Deialdian onartua izateko eskubideak ordaindu direla egiaztatzen duen agiria, behar bezala identifikatuta.
- 3) "B" klaseko gidabaimena izatea.
- 4) Administrazioak horretan eskumena duen organoak emandako egiaztagiria, %33ko minusbaliotasuna edo minusbaliotasun handiagoa duela legez aitortzen diona, baina lanpostuaren berezko zereginak betetzeko gaitasunik gabe uzten dion minusbaliotasuna izan gabe.